



Arartekoaren 2019S-2848-17 EBAZPENA, 2019ko maiatzaren 15ekoa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio berriz azter dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzeko erabaki bat, herritarrak enpleguari bere borondatez uko ez ziola egin uste baita.

Aurrekariak

1. Arartekoak herritar batek aurkeztutako kexa izapidetzeko onartu zuen. Horren bidez, interesdunak Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, ez zetorrelako bat Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzeko emandako ebazpenarekin.

Lanbidek prestazio horiek iraungitzea erabaki zuen 2017ko azaroaren 23an, arrazoi honetan oinarrituz (espediente zenbakia: 2017/REV/079591):

“Ebazpena amaitu aurretik baita prestazioaren diru-sarrera bitartean, titularrari edo bizikidetza-unitateko edozein kideri legokiokeen eskubide edo prestazio ekonomiko oro ez baliatzea”.

Erderazko idatzian beste hau ere esaten zen: *“Consta rechazo voluntario el 23/08/2017 de oferta de empleo”*. Erakunde horretan kexa formala aurkezteko unean, kexagileak guraso bakarreko bizikidetza-unitatea osatzen zuen 7 urteko alabarekin batera.

2017ko abuztuaren 2an, kexagileak geriatriako laguntzaile gisa lan egiteko eskaintza bat jaso zuen. Hiru txandatan banatutako enplegua zen eta lanean hurrengo egunean hastea eskatzen zuen, gainera. Interesdunak adierazi du, une hartan, ezin izan zuela lan-eskaintza hori onartu ez zeukalako inor lan-orduetan bere alaba adingabea zaintzeko. Horrez gain, kontuan hartuta abuztua zela, ezinezkoa zitzaion bere orde z alaba zainduko zuen norbait aurkitzea.

Hala ere, kexa-espedientetik ere ondoriozta daiteke kexagileak ordaindutako lanpostu batean lan egiteko asmoa zuela. Horren adibide, handik pixka batera, azaroan, bi enplegu-eskaintzaren hautagai izatea onartu zuen, eta eguneko zentro batean geriatriako laguntzaile gisa lan egiteko hautatu zuten.





Dena den, enplegu-eskaintza hori onartu ez izanaren ondorioz, Lanbidek interesdunari adierazi zion prestazioak iraungitzen zitzaizkiola 2017ko azaroaren 23ko ebazpenaren arabera; hala, urtebetez ezingo zituen prestazioak berriz eskatu.

Ebazpen horren aurka, kexagileak aukerako berraztertze errekurtsoa jarri zuen 2017ko abenduaren 5ean, baina azkenean ezetsi egin zen.

2. Aurkeztutako kexari dagokion izapidetzea emate aldera eta gai horren xehetasunak argitzeko, Arartekoak informazioa eskatu zion Lanbideri.

Halaber, erakunde honek, aurretiaz eta haiei erantzun ahal izateko azalpenak jasotzeko zain, hainbat gogoeta helarazi zituen, eta ez errepikatzeko, ondoren idatziko dira.

3. Bestalde, espediente horren izapidean, Lanbidek erakunde horretako zuzendari nagusiaren txostenaren bidez erantzun dio Arartekoari:

"2017/08/2an, sistemak interesduna laneskaintzarako izangai egoki gisa sartu ostean, 14:29an Lanbitel harremanetan jarri zen harekin, eskaintza aurkezteko, eta prest al zegoen jakiteko. Eskaintzaren ezaugarriak azaldu zitzaizkion:

"ADINEKOEN ZENTRO PRIBATU BATEAN EGOILIARRAK LAGUNDU ETA ZAINTEA EZINBESTEKOA: ERIZAINTEA ZAINTEA OSAGARRIEN TEKNIKARIAREN TITULAZIOA IZATEA, EDO MENDEKO PERTSONEI GIZARTEERAKUNDEETAN GIZARTE- ETA OSASUNARRETA EMATEKO PROFESIONAL TASUNZIURTAGIRIA, ETA GUTXIENEZ URTEBETEKO ESPERIENTZIA ANTZEKO LANPOSTU BATEAN. ALDI BATERAKO KONTRATUA. ASTEAN 30 ORDUKO LANALDI PARTZIALA. GOIZEKO ETA ARRATSALDEKO TXANDETAN. BEREHALA LANEAN HASTEA.

Jakinda lanpostua txandatan egiten dela (ohikoa da hori, mota horretako titulazio eta lanpostu baterako} eta lanean berehala hasi behar zuela, prest zegoela erantzun zuen. Beraz, bere kandidatura enpresari bidali zitzaion; empresa hark geroago elkarrizketa egin zion, eta bere kabuz lan-eskaintzari uko egin ziola jakinarazi zigun".

Gogoetak





1. Lehenik eta behin, Lanbideren iritziz, 2017ko abuztuan eskainitako enplegua azkenean ez onartzean, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean xedatutako eskakizunak eta, zehazki, 19.1.b) artikuluan zehaztutakoak, ez ditu bete. Beraz, dirusarrerak bermatzeko errentaren eskubidea iraungitzen da azaroaren 24ko 4/2011 Legeak emandako idazketan aurreko legeak 28.1.i) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta interesdunak iraungitze-egunetik zenbatzen hasita, ezingo du urtebetez prestazioa berriz eskatu.

18/2008 Legearen 28.1.h) artikuluan xedatutakoaren arabera, diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzeko arrazoia izango da honako hau: *“Lege honen 19.1.b) artikuluan ezarritako betebeharra ez betetzea”*. Honako hau, hain zuzen:

“Prestazioak irauten duen aldi osoan, dagokion edo bizikidetzarentako edozein kideri dagokion eskubide edo prestazio ekonomiko oro baliaraztea”.

Erakunde honek beste aldi batzuetan aipatu izan duenez, eskubide ekonomikoak baliarazteko betebeharraren azpian prestazioak jasotzeko eskubidearen osaera bera dago; izan ere, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 13.1 artikuluan zehazten den moduan, honako hau du bereizgarri:

“...indarrean dagoen legerian ezarritako era guztietako errekurso eta prestazio ekonomikoen izaera subsidiarioa eta, hala badagokio, osagarria, titularrari edo haren bizikidetzarentako edozein kideri dagokiena...”.

Kontu hori 2017ko Diagnostiko-txostena izeneko testuan aztertu zen, 5.3.3) apartatuan (78-83 orrialdeak)⁴. Txosten horrek Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen ditu.

Adibide gisa, 2017ko maiatzeko Lanbideren irizpideek ere jasotzen dute, 9.2 apartatuan, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eman aurretik baliarazi beharreko eskubide ekonomikoak, bai eta haiek indarren dauden artean ere:

“- Langabeziako prestazioa, sorospenak eskatzea edo hartzaileak eskatzeko eskubidea duen beste edozein laguntza.

⁴www.ararteko.eus webgunean eskuragarri



- *Mantenu pentsioa edo pentsio konpentsatzailea eskatzea.*
- *Jaraunspen bat onartzea (inbentarioaren mesedetan onartzea baimentzen da)*
- *Etxebideren alokairuko araubidean dauden etxebizitzetzi uko ez egitea.*
- *Laneko kaleratzeengatik kalte-ordainak eskatzea.*
- ...”.

Bestalde, 18/2008 Legearen 28.1.i) artikulua, azaroaren 24ko 4/2011 Legeak emandako idazketan, “enplegu egoki” bati uko egitea iraungitzeko arrazoitzat jotzen da, baldin eta *“aplikatzeko modukoa denean, behin uko egitea, arrazoi justifikaturik gabe⁵, indarreko legeriaren arabera egokia den enplegu bati edo dirusarrerak handitzea ekar lezakeen lan-baldintzen hobekuntza bati”*.

Hala ere, diru-sarrerak bermatzeko euskal sistema erregulatzen duen araudi autonomikoak ezartzen du zer hartu behar den “arrazoi justifikatuztat”, herritarrei diru-sarrerak bermatzeko errenta ez iraungitzeko enplegu bati uko eginez gero.

“Kausa justifikatua” egotea hainbat modutan interpreta daiteke, gizarteratzeari buruzko araudian ez baitago jaso noiz ulertu behar den enpleguari modu justifikatuan uko egin zaiola. Ildo horretan, kontzeptu juridiko zehaztugabea izenekoaren aurrean gaude. Beraz, kontzeptu abstraktu bat da, modu zehatzean mugatu ez dena, kasu zehatz bakoitzaren egoerei moldatutako konponbideak baimentzen dituena.

Hizpide dugun gaian, erakunde honek uste du Lanbidek aipatutako manuen interpretazio zabala egin duela, interpretazio kaltegarria guraso bakarreko familia batek osatzen duen bizikidetzaren horren eskubideei dagokienez. Gainera, aurrez aipatu den moduan, kexagilea 2017ko azaroan hasi zen lanean eskainitako beste lanpostu batean, baldintza hobeak izanik eta familia-bizitzarekin bateragarria egiteko aukerarekin. Arrazoi hori dela-eta, Arartekoak uste du enpleguari hasieran uko egitea interesdunak enplegu ordaindu batean lan egiteko zuen asmo irmoari lotu behar zitzaioela eta lanharreman berri

⁵ Arartekoaren hanpadura



batean berehala alta emateari; beraz, justifikatuta legoke ondorioztatzea eskubide ekonomiko bati ez zitzaiola ukorik egin.

2. Aurrekoaren harira, egia bada ere kexagileak hasieran lan-eskaintzarekiko interesa agertu zuela adineko zentro baten egoiliarrei arreta eta zaintza emateko, *a priori* ikuspegi objektibo eta orokor batetik ere egokia zena, erakunde honek uste du enplegu-eskaintza helarazi zaion pertsonari lotutako alderdi subjektiboek lan-harreman bat abiarazteko aukera justifika eta baldintza dezaketela.

Ildo horretan, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onartzen duenak, 301. artikuluan arautzen da "lanpostu egokiaren" kontzeptua, honela definituz:

"Lanpostu egokitzat joko da langileak eskatutako lanbidea, bere lanbide ohikoarekin bat datorrena edo bere gaitasun fisiko eta prestakuntza gaitasunekin bat datorren beste edozein".

Gainera, beste hau gaineratu du:

"Langileari eskainitako lanpostua egokitzat joko da lanaren iraupena (mugagabea edo aldi baterako) edo lanaldia (lanaldi osoa edo partziala) kontuan hartuta". (...)

Aurreko paragrafoetan ezarritakoa aplikatze aldera, enpleguaren zerbitzu publiko eskudunak langabearen lanbide-inguruabarrak eta pertsonalak aintzat hartuko ditu, bai eta familia nahiz lana bateragarri egitea ere (...)".

Orain azpimarratu behar da, kexagilearen inguruabar pertsonalak aztertuta, kasu honetan guraso bakarreko bizikidetzaren unitate bat dugula, ardurapean adingabe bat duela eta haren erabateko zaintza eta babespea duela; familia babesik edo babes publikorik ere ez du eta, hortaz, abuztuan, berehala (hurrengo egunean, zehazki) lanean hasteko aukerarik ez du. Halaber, eskainitako lehenengo enplegu hori aldi baterako kontratua zen, lanaldi partzialekoa, eta goizeko eta arratsaldeko txandekin.

Horregatik, kexagilea hasieran lan egiteko prest agertu arren, eskainitako lanpostua betetzeko baldintzak eta ordutegiak ez ziren bateragarriak uda garaian 7 urteko adingabe bat zaintzeko zuen ardurarekin. Beraz, Arartekoak uste du enplegua ukatzeko arrazoi justifikatua egon zela, eta egoera hori





18/2008 Legeak 28.1.i) artikuluan ezartzen dela. Hala, iraungitzeko arrazoirik ez zen izan.

Erakunde honek jakin badaki 18/2008 Legeak ez diela erantzuten lana eta familia bateragarri egiteko premia zehatz batzuei, aurrez aipatu den 2017ko diagnostiko-txostenean agerian jarri zen moduan. Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren helburua ez da familia babestea. Hortaz, Lanbidek sistema horren araudiarekin bat etorritik jarduten du. Hala eta guztiz ere, adingabeak dauden guraso bakarreko familiei diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa iraungitzea oso ondorio larria da, Gizarte Babeseko Euskal Sistemari ez dagoelako antzeko beste estaldurarik.

Kasu honetan, Arartekoak uste du enpleguari uko egiteko arrazoi justifikatua dagoela, bertan dauden inguruabarrek araudiaren beste interpretazio bat egiten uzten baitute. Aldiz, prestazioak iraungitzeak eta urtebetez berriz eskatu ezin izanak adingabe bat ardurapean duen guraso bakarreko familia hori pobrezia eta gizarte bazterketa egoera batera eramanez dute. Horrek dakar Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko 18/2008 Legearen helburuaren aurka jotzea; izan ere, 1. artikuluan honako hau ezartzen du:

“Lege honen xedea da Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema arautzea, eta, horren barruan, beharrezko prestazio ekonomikoak eta tresnak izateko eskubidea arautzea, herritar izateak dakartzan eskubide sozialak benetan baliatzeko orduan behar beste baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko ez dutenei laguntzeko, bai bazterkeria-arriskuari aurre egiten, bai bazterkeria pertsonala, soziala eta laborala arintzen, bai gizarteratzea errazten”.

3. Azaldutakoaz gain, azpimarratu behar da kexagileak guraso bakarreko bizikidetzaren unitate bat osatzen duela eta adingabeko alaba bat duela ardurapean. Kasu honetan, adingabearen interes gorenari hartu behar da kontuan lehentasunez bizikidetzaren unitatearen betekizunak eta betebeharrak betetzen direla kontrolatzeko neurriak hartzeko orduan. Erakunde honek berriz gogoratu behar du adingabearen interes gorenaren eskubideak zer garrantzi duen; izan ere, gure ordenamendu juridikoaren barnean dago: Nazio Batuen 1989ko Konbentzioa, Haurren Eskubideei buruzkoa; haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzeko uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa, adingabearen babes juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoan adingabearen interes gorenari dagokionez ezarritako araudia aldatzen duena.





Horrenbestez, Arartekoak apirilaren 8ko 2/2015 Gomendio Orokorrean adierazi zuen moduan, adingabearen interes gorenak haurren premiak behar bezala haztatzera garamatza. Hitzarmenak aitortutako eskubide guztiak erabat eta modu eraginkorrean gozatuko direla bermatzea dakar, bai eta bere garapen holistikoa bermatzea ere, haurraren garapen fisiko, mental, espiritual, psikologiko eta sozial gisa hartuta. Eskubide substantiboa da, interpreta daitekeen printzipio juridiko bat eta prozedurazko arau bat.

Arartekoaren ustez, Lanbidek behar bezala haztatu beharko zituzkeen inguruabar horiek. Izan ere, diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzeak guraso bakarreko familia bati eragiten dio, hain zuzen ere, gizarte-bazterketako egoeran dagoen emakume bati eta ardurapean duen alabari. Aipatu behar da, biztanle-talde ahulenetako bat dela; hala diote behintzat Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak berak egindako txostenek eta diagnostikoek⁶.

Interpretaziozko printzipio juridiko hori kontuan hartu behar da, are gehiago, kasu zehatz honetan bezalaxe, prestazioen titularrak lan-eskaintza ukatzen duenean lanpostua alaba zaintzearekin bateratzea zaila delako udako oporraldietan, bere egoera pertsonala nolakoa den kontuan hartuta, hau da, ama ezkongabea da eta familiaren babesik ez du.

Beraz, Arartekoaren aburuz, aztertutako kasuan 2017ko abuztuan enplegua onartu ez izana justifikatzeko arrazoi sendoak daude, eta ez zegoen, hortaz, prestazioak iraungitzeko arrazoirik.

* * *

Azaldutako guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Arartekoak Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari honako iradokizun hau egin nahi dio:

IRADOKIZUNA

⁶ 2016ko Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren emaitzen txostena (PGEI), 2016. (www.euskadi.eus webgunean eskuragarri)



Arartekoak iradokitzen du diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzeko Lanbidek emandako ebazpena berriz aztertzea, herritar batek enpleguari bere borondatez uko ez ziola egin uste baitu.

